

X. VALENCIANO "ZELAI LUZE"

**35 URTE DITU ERMUAR
HARRIJASOTZAILEAK. 13
URTE ZITUELA HASI ZEN
KIROL HONETAN ETA
GEROZTIK MAKINA BAT
HERRITAKO PLAZAK
EZAGUTU DITU. HARRI
TXIKIEKIN BATEZ ERE
BAINA HARRI HANDIEKIN
ERE ARITU DA.
EKAINAREN 11AN
AZPEITIAN JOKATU ZEN
URREZKO HARRI JASOTZE
TXAPELKETAREN
FINALEAN MIELTXO
SARALEGI BIKOTE ZUELA
IZETA ETA AIMAR
IRIGOIENEN AURKA ARITU
ZEN. FINALEAN EZ ZUTEN
EZ BERA EZTA BERE
BIKOTEAK BEREN MAILA
ONENA EMAN ETA
HORREK BURUMAKUR
UTZI BADU ERE, GURE
GALDEREI ERANTZUN DIE.**

-Finala galdu ostean zer moduz?

Ez dut aurkariaren lana gutxietsiko. Berairen lana txukun egin zuten guk oster, ez genuen gurea eman. Horrek burumakur utzi nauen arren, txapelketarekin oro har pozik nago.

"Txapelketek lan asko eskatzen dute"

-Mieltxo Saralegi izan duzu bikote...

Txapelketa honetan pozgarriena hori izan da. Mieltxorekin oso ondo konpondu naiz. Elkar ezagutzen genuen arren, txapelketarako prestakuntzan hobeto ezagutzeko aukera izan dut. Mutil oso atsegina da, umoretsua.

-Txapelketa hau jokatu arren aspaldian hasi zinen zu honetan...

13 urte nituela hasi nintzen harri jasotzaile lanetan. Aita eta aitona ere herri kirol zaleak izan dira betidanik eta hortik datorkit zaletasuna.

-Nola gogoratzen duzu zure aurreneko plaza saioa?

Eibarren izan zen. Gogoan dut oso urduri nengoela.

-Egun bereziena?

14 urte nituela lehenengo aldiz 100 kiloko zilindroa leporatu nuen eguna. Ermuan izan zen. Bizkaiko aurreneko txapelketa irabazi izanak ere poz handia eman zidan.

-Etxean harria altxatu eta plazan ezin...

Aurkakoa ere gerta liteke. Etxean ez duzu estuasunik, lasai zaude. Plazan ikuslea dago, horrek norbera estutu egiten du eta marka egitera behartzen zaitu.

-Gustokoen duzun harria?

125 kiloko bola.

-Lanean hargina eta lanetik kanpo harrijasotzailea. Harri lartxo...


Ez dut bata bestearrekin zerikusirik. Ez dut inongo arazorik. Urteak dira eta jada ohitu naiz eremu bakoitza ongi ezberdintzen.

-Lesio kontuetan zer moduz?

Azkenaldian nahiko gaizki nabil. Be-launak direla, izterraren atzeko alde del... Halere ez dut lesio larririk izan.

-Jose Antonio Gisasola "Zelai"...

Asko zor diot. Laguna, aholkularia, kirolari mundiala, izan den harri jaso-



tzaile haundienetarikoa.

-Miren Urkiola...

Neska indartsua, saiatua... Hor ibiltzen gara elkarrekin entrenamenduan. Marka izugarriak egin ditu. Hor dabil plazarik plaza eta hortxe segiko du luzaroan.

-Aurrera begira ze asmo?

Txapelketak geroz eta lan handiagoa eskatzen dute eta ondo pentsatu behar du zer egin. Plazaz plazakoa erreza go egiten da. Hor segi nahiko nuke zenbait urtez.

Asier Ibaibarriaga

IRITZIA

"Oso pozik aritu naiz Xabierrekin. Ez genuen elkar larregi ezagutzen baina oso ondo konpondu gara. Zailena, erritmo aldaketa izan da niretzat. Harri handietatik txikietara dagoen jausia. Finalean ez genuen ezer galtzeko, lehenengo kanporaketa garaitzea ere nahiko zen guretzat. Dena den, finalera iritsiz gero edo nork nahi du irabaztea".

(mieltxo Saralegi)



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net